

INFO.

Zerbitzu publikoak

Politikak dagoeneko aldatzen ari gara, EAJren azken hilabeteetako barne arazo eta mugimenduek adierazten duten bezala, eta alderdi guztien zerbitzu publikoekiko birkokatzen ari direla ere ikusten dugu.

Grebak eta mobilizazioak bezala, datozen hauteskunde autonomikoak ere tresna egokia dira Eusko Jaurlaritzaren politikei buelta emateko.



AURRE-ERRETIRO TXANDA:

Dekretuaren luzapena negoziatu gabe, Eusko Jaurlaritzak murrizketekin eta inposaketekin agurtu ditu langile publikoak

Hil honetan Eusko Jaurlaritzak utziko duten alderdiek euren aztarna utzi nahi dutela dirudi, eta legegintzaldian mantendu duten keinu adierazgarri berarekin agurtu nahi dituztela langile publikoak. Urtero aurre-erretiroaren zain egon izan diren eta dauden langileak gatibu hartu izan ditu, eta aurre-erretiroaren inguruan neurri partzialak inposatzen aritu da: soilik lan-legepeko langile finkoentzat luzatzen aritu da aukera, behin-behinekoak eta funtzionarioak eta estatutarioak bazter utzita; baita gehiago sindikalekin adostea suposatzen duen ariketa demokratikoari uko eginda ere: azken finean, murrizketak eta inposizioa.

Aurten bere harrokeria maila gorenera eraman du. Izan ere, greben testuinguruan azaroan eduki genuen azken Mahai Orokorraren bileran txantajeari beste buelta bat eman zion, eta gehiago sindikalak sinatzen ez bazuen, bere dekretua ez luzatzeko mehatxua egin zuen.

Asteartean LABek Eusko Jaurlaritzaren dei bat jaso zuen nolabait «leihatilatik pasatzeko» testu itxi hori sinatzera eskatuz, negoziazio mahairik deitzeko edota proposamenik eztabaidatzeko asmorik ez dutela argi

utzita, publikoan adieraztera eman nahi dutenaren kontra. Hartu edo utzi. Hauteskundeak hurbil, bere hitza jan eta, gutxiengo batek sinatuta dekretu murrizta luzatzea erabaki du, nahiz eta inoren sinaduraren beharrik ez izan, argazkirako ez bada. Edozein kasutan, argi geldituko da Jaurlaritzak langileen beharrei bizkar emanda eta negoziazio kolektiboari uko eginda amaituko duela legegintzaldia.

LABen ez dugu ez txantajerik ez inposiziorik onartuko. Jaurlaritzak hau amortizatuta dago, eta osatuko den berriari Mahai Orokorra lehenbailehen deitzeko exijituko diogu, langile publikoak azken urteetan eta, batez ere, azken hilabeteotan egindako grebetako eta mobilizazioetako aldarrikapenak negoziatzeko. Aldarrikapenen artean, hain zuzen, enplegua sortzea eta egonkortzea jasotzen genuen; langileon lan bidez aurrez duintasunez amaitzea lanpostu berriekin ordezkatzu, kasurako.

LABek aipatutako aurre-erretiro txandaren dekretuaren luzapena bezalako murrizketa eta inposizio neurriekin amaitzea exijitzen du, eta langileak mobilizatzea deitzen jarraituko du politika hauek aldatzeko.